

Carmen Valois

NUPEKO IRAKASLEA

Potterren ekologia

Baina ez Harryrena, irakurle. Izan ere, Van Rensselaer Potterren (1911-2001) inguruan arituko naiz, heldu den abuztuan beteko baitira ehun urte jaio zela.

Hasiko naiz aipatzen, biokimikan aditua zela eta bere lana lotua egon zela ikerkuntza onkologikoarekin Wisconsin-eko Medikuntza Fakultatean. Horretaz gain, “bioetika” kontzeptuaren inguruko hausnarketa sakona zor diogu. Baita diziplina honen lehendabiziko liburua ere, *Bioethics: Bridge to the future* (*Bioetika: Etorkizunerako zubi bat*) izenekoa, 1971. urtean argitaratua.

Bertan azaltzen ditu zubi hori eraikitze-ko zutabeak zeintzuk diren. Hasteko, definitzen du bioetikaren funtsezko papera: zientziak eta giza zientziak lotzea. Bere ustez, ezagutza zientifikoa eta teknologikoa ez dira, berez, nahikoak gizakion zoriontasuna lortzeko, ezta zibilizazio justu eta iraunkor bat garatzeko ere. Horregatik ekologia baten beharra aldarrikatzen du, oreka baten premia. Bioetikak duen ikuspuntu zabala eskaintzen digu, elkarrekiko lotze baten beharizana, bizidunena, guztiona, gu eta naturarena.

Bestetik, balio etikoen garrantziaz hitz egiten digu. Berarentzat balio etikoak eta gertaera biologikoak elkaturik doaz. Eta horietan datza,



DANI BLANCO

hain zuzen, egungo zibilizazioak arazoei aurre egiteko garatu beharreko jarrera eta ekintzen oinarriak. Horrela dio: guk etikaren beharra daukagu, lurruna, kontsumoarena, populazioarena... Denak beharrezkoak baitira ekosistema globalaren iraupenerako.

Halaber, Potterrek aldarrikatzen duen bioetikan, umiltasuna oinarritzko bertutea da, erantzukizunaz jokatzera eramaten gaituena, hots, munduan dagoen esperientzia eta eskura dugun ezaguera baliatzea. Diziplina akademikoaz harago, Potterrek bizitzaren aldeko konpromiso eta militantzia aktibo baten alde aldarri egiten du: gizakion arazoei aurre egiteko modu bat, zibilizazio eta kulturen bizi-raupen zintzoa bermatzeko.

Edonola ere, Potterrek aurreikusitako etorkizuna gure oraina da. Atsotitz japoniar honek dioen moduan: “Lehenaldia ezagutu nahi baduzu, begira oraina, haren emaitza baita. Etorkizuna ezagutu nahi baduzu, orainari egin so, haren kausa delako”.

Guk ez genuke ahaztu behar, etika global horren beharra izaten jarraitzen dugula; hitzena, ideiena eta hausnarketarena ere. Funtsan, pentsaera ekologiko oso bat garatu beharra daukagula, egungo bizimoduak irentsi ez gaitzan. Bizimodu iraunkorrago baten alde. ■

« Ez genuke ahaztu behar, etika global horren beharra izaten jarraitzen dugula; hitzena, ideiena eta hausnarketarena ere »

TXANDAN

Igor Estankona



Zaragozako alkateak antza denez argi dauka, baina nik ere badaukat nire teoria Donostia hautatu izanaren ingurukoa. Europako erakundeetan kokoteraino daude militarretaz, eskola-porrotaren Espainiaz, kokoteraino presio politikoez, kokoteraino 1986tik negar baino egin ez dutenez. Tortura kasuak errebisatzeaz aspertzen eta lotsak gorrizten hasi dira. Hegoaldeko monarkia kirastuak garrantzitsua izaten jarraitzen du biztanle aldetik, baina jada ez da hain beharrezkoa Europaren legitimotasunerako.

Horixe gertatzen da. Europar Batasuna Aus-

2016

trian bukatzen zireneko garaiak joan ziren, nahiz eta galtzaile txarretako asko ez den oraindino horretaz ohartu. Eskatu eta emango zaizue, pentsatzen dute, hala ohi-tuta. Eta ez diete eman.

Donostiak ere programa aspergarri, garesti, motel eta prebisiblea aurkeztu zuen. Etxeko sua etxeko hautsaz estaltzeko elegantzia, denek bat egiteko ahalmena eta euskaldunen seriotasuna aukeratu dituzte, ordea. Nire ustez, potentziala saritu dute, bakearen aukera, beste era bateko Donostia 2016. Saritu dute txundi dezan mundua eta alda dezan ideiarik gabe, loturik dagoen Europa. ■